



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Saila: KONTRATAZIOA

Espedientearen zk.: 16-257

AMOREBIETA-ETXANOKO UDALEKO ERAIKIN PUBLIKOEN GARBIKETA ZERBITZUA, PROZEDURA IREKIZ KONTRATATZEKO, ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1.- ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Subjektu kontratatzailea Amorebieta-Etxanoko udala da, hots, Toki Administrazioaren nortasun juridiko publikoa duena.

Kontratazio-organoa Amorebieta-Etxanoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da, 538/2015 zk.ko Alkatetza Dekretuaren arabera, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartutako Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren (aurrerantzean SPKLTB) bigarren xedapen gehigarriak emandako eskumenari dagokionez.

Kontratazio-organoan kontratazio-mahaia egongo da, modu honetan eratuta:
-Mahaiburua. Amorebieta-Etxanoko udalaren alkatea edo zinegotzi ordezkaria.

-Mahaikideak:

- EAJ-PNV taldeko zinegotzi bat.
- EH BILDU taldeko zinegotzi bat.
- HE taldeko zinegotzi bat.
- PSE-EE taldeko zinegotzi bat.
- Udalaren idazkaria edo berak eskuordetzen duen funtzionarioa.
- Udalaren kontu-hartzailea edo berak eskuordetzen duen funtzionarioa.
- Arkitekto tekniko bat

- Administrazio Orokorraren teknikari bat edo berak eskuordetzen duen funtzionarioa. Aldi berean, mahaiko idazkari bezala jardungo du.

2.- KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honetan oinarrituta egingo den kontratuaren xedea zerbitzu hau ematea izango da: Amorebieta-Etxanoko Udaleko eraikin publikoen garbiketa zerbitzua, espedientearen agertzen den baldintza teknikoaren agirian zehazturik dauden eta kontratuzko izaera izango duten ezaugarriekin.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

3.- BETEARAZPEN-EPEA

Kontratu horren iraupena LAU URTEKOA da, kontratua sinatzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Aurreikuspena kontratua 2017ko urtarrilaren 1ean hastea da.

Kontratuaren epea urtero luzatu ahal izango da, gehienez beste BI URTE, kontratua amaitu baino lehen, alde guztien arteko adostasunez, eta kontratazio organo eskudunaren berariazko erabakia beharko da horretarako.

4.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratua betetzeko eskuragarri dagoen urteko oinarritzko aurrekontua 479.160 eurokoa da (396.000 € + %21eko BEZa: 83.160 €).

Kontratu honen modalitatearen arabera, ez da prezio osoa ezarri, honelako arauak zehaztu diren arren:

1. Hasieran zenbatutako lanen (nahitaezko zerbitzuak) **urteko prezioa** honako hau izango da, baldintza teknikoen arabera:

HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMAR MILA EURO (390.000 €).

%21eko BEZa: LAUROGEITA BAT MILA BEDERATZIEHUN EURO (81.900 €).

GUZTIRA: LAUREHUN HIRUROGEITA HAMAIIKA MILA ETA BEDERATZIEHUN EURO (471.900 €).

Zenbateko hori lizitatzailleek hobetu ahal izango dute. Kopuru horietan barneratutzat joko dira kontratu horretako xede diren zerbitzuak gauzatzeko beharrezkoak diren kostu guztiak. Era berean, *Amorebieta-Etxanoko Udalaren eta Amorebieta-Etxanoko Kirol Fundazio Publikoaren menpe dauden lokal eta eraikin publikoak garbitu eta/edo hauek artatzeko lan egiten duten langileen lan baldintza batzuei buruzko Akordiotik eratorritako soldataren osagarriak barne egongo dira (baldintzen agiri honen I. Eranskinean Akordioa agertzen da).*

2. **Ezohiko zerbitzuak:** prezioa unitate prezioaren arabera zehaztuko da, edo, hala badagokio, justifikatuko diren prezio kontraesankorren eta kontratuaren zuzendaritzak onetsiko dituenen arabera. Kasu honetan, urteko gastuaren gehienezko aurrekontua honako hau da:

SEI MILA EURO (6.000 €).

%21 BEZa: MILA BERREHUN ETA HIRUROGEI EURO (1.260 €).



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

GUZTIRA: ZAZPI MILA BERREHUN ETA HIRUROGEI EURO (7.260 €).

Aurrekontua 24,20 €/orduko oinarrizko prezioetik (20€/ordu gehi %21eko BEZa) abiatuta kalkulatu da eta proposamen ekonomikoak egiteko gehieneko muga izango da. Ohiko zerbitzuetan bezala, lanak gauzatzeko kostu guztiak sartuak egongo dira.

Kontratuaren aurreikusitako balioa (SPKLTBren 88. artikulua). Aintzat hartuta kontratuaren iraupena, balizko luzapenak eta agiri hauetan zehaztutako kontratua aldatzeko aukera, zenbatekoa hau da: **2.851.200 €**

5.- ZERBITZUAREN FINANTZIAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaindu ahal izateko, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

6.- LANEN ESLEIPENAREN ORDAINKETA

Kontratistak erabat gauzatu dituen lanak adostutako prezioen arabera kobratzeko eskubidea dauka, egindako kontratuan, onetsitako aldaketetan eta Administrazioak emandako aginduetan oinarrituta.

Prezioaren ordainketa SPKLTBren 216.4 artikuluan aurreikusitako epean egin beharko da. Ordainketaren aurretik, lana gauzatu dela egiaztatuko duen agiria aurkeztuko da eta hari oniritzia eman beharko zaio.

Faktura 2.000 euro (BEZa barne) gainditzen dituzten zenbatekoetarako elektronikoki aurkeztu beharko da. Dena den, borondatez faktura elektronikoa erabil daiteke, nahiz eta fakturaren zenbatekoa hori baino txikiagoa izan.

DIR 3 kodeak, faktura elektronikoak egiteko beharrezkoak, ondorengoak dira:

Kontabilitate-bulegoa	Amorebieta-Etxanoko Udaleko Kontu-hartzailera	L01480031
Organo kudeatzailea	Amorebieta-Etxanoko Udala	L01480031
Izapidetze-unitatea	Amorebieta-Etxanoko Udala	L01480031

Faktura elektronikoa HORNITZAILEAREN ATARIAN aurkeztuko da eta Udaleko WEB orriaren bitartez iritsiko da. Bestela, honako helbidera joko da: <https://e-udala.amorebieta-etxano.eus:8089/fakturak>.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

7.- PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honen prezioak aurretik zehaztuta eta aldizka ezingo dira berraztertu, Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legeak emandako idazkeran, SPKLTBren 89. artikuluan xedatutakoarekin.

8.- BERMEAK

Ekonomikoki proposamen onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailleak, hartutako betebeharren betepena bermatzeko xedearekin, esleipenaren zenbatekoaren %5eko behin betiko bermea eratu beharko du, BEZa kanpo.

Aipatutako bermea eratzeko epea hamar egun baliodunekoa izango da, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik zenbatuta. Horrez gain, SPKLTBren 96. artikuluan ezarritako baliabideetatik edozein erabili ahal izango da. Abalaren bidez eraturako behin betiko bermearen eraketa erakunde abal-emaileak egindako adierazpen arduratsuaren bidez egiaztatuko da, agiri honen II. Eranskinean jasotako eredia aintzat hartuta. Kauzioko aseguru-kontratuaren bidezko behin betiko bermearen eraketa erakunde aseguratzailleak egindako adierazpen arduratsuaren bidez egiaztatuko da, agiri honen III. Eranskinean jasotako eredia kontuan izanda.

Adierazitako epean eskaera ez bada behar bezala betetzen, lizitatzailleak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da. Kasu horretan, eskaintzen sailkapen ordenari jarraituz, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileri.

Kontratua aldatzearen ondorioz, horren prezioa aldatu bada, bermea doitu egin beharko da, batik bat, aldatutako prezioari begira behar besteko proportzioa izan dezan, hamabost eguneko epean, enpresariari aldaketa-erabakia komunikatzen zaion datatik zenbatuta.

Bermea SPKLTBren 102. artikuluan xedatutakoaren ariora itzuliko da, behin kontratuaren likidazioa onetsita eta bermearen epea igarota, betiere adjudikaziodunaren erantzukizunak sortzen ez badira.

9.- KONTRATUAREN BETEARAZPENA

Kontratua kontratistaren arriskuan eta menturan beteko da.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Kontratua agiri honetako klausulei, horri lotutako zehaztapen teknikoei eta adjudikaziodunak egindako eskaintzari erabat lotuta gauzatuko da, baita SPKLTBan eta gainerako arauetan xedatutakoari ere, Administrazioaren zuzendaritzapean, ikuskaritzapean eta kontrolpean. Administrazioak ahalmen horiek bai idatziz, bai ahoz gauza ditzake.

Kontratatari edo horren mendeko pertsoneri egotzi dakizkiekeen egintzen edo ez-betetzeen ondorioz kontratuaren garapena egokia izateko konpromisoa hartzen duenean, Administrazioak kontratua burutzeko ordena egokia erdietsi edo berrezartzeko beharrezkotzat jotako neurriak hartzea agindu ahal izango du.

Adjudikaziodunaren betebeharrak izango dira agiri honetan eta baldintza teknikoan agirian ezarritakoez gain, ondokoak:

- a) Zerbitzua eman adostutako jarraipenarekin, erakunde adjudikaziodunaren kanpoko zein barruko inguruabarrak edozein direla ere.
- b) Zerbitzua behar bezala burutzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak eskaini. Kontratatutako zerbitzua normalean ematen duten langileen gaixotasun baja, lizentzia, oporrak, etab. tarteko direnean eta kontratuaren adjudikaziodun den enpresak langile hauek ordezkatu behar baditu, kontratatutako langile berriek ordezkatzeko dutenak beste kobratuko dute, izaera pertsonala duten kontzeptuak izan ezik, esaterako antzintasuna.
- c) Udalak eskatutako balu, koordinatzaile arduradun bat izendatu, kontratatariaren ordezkari lanetan aritzeko.
- d) Sortzen diren gastu eta zergei aurre egin, bai zerbitzua burutzeko egiten duen jarduerarengatik zein kontratua prestatu eta formalizatzeko ondoriozkoak.
- e) Zerbitzuaren funtzionamendu ona jagon, egoki diren jarraibideak eman ahal izango dituelarik. Dena dela, Administrazioaren esku egongo da zerbitzuaren martxa ona ziurtatzeko beharrezko polizia zereginetan jardutea.
- f) Zerbitzua burutzeko ondorioz egiten diren eragiketek hirugarrenei sortarazten dizkien kalte-galerak ordaindu. Horretarako, erantzukizun zibileko dagokion poliza izan beharko du, gutxienez 300.000€-ko estaldurarekin, kontratu hau egikaritzen duen bitartean bere jardueraren ondorioz sor daitezkeen arriskuak estaltzeko. Estaldura behar bezala eguneratu beharko da gutxienez urte biro. Kontratua formalizatu baino lehen, Udalari poliza horren kopia aurkeztu beharko zaio. Era berean, urtero, poliza ordaindu izana egiaztatzen duen ordainagiria aurkeztuko da.
- g) Udalari eskatutako argibide guztiak eman, baita aurkeztutako proposamenak osatzea ere, proposamenok hobeto ulertu ahal izateko.
- h) Korporazioak eskatzen dizkion gehitze edota aldaketa guztiak eskaintako unitate-prezioa baino prezio altuago batean ezingo dira egin eta, dagokionean, eguneratuta egon daitezke.
- i) Adjudikazioduna behartuta dago kontratu honetarako lan egingo duten langileen Gizarte Segurantzako kuoten ordainketa egunean duela Udalari modu sinesgarrian justifikatzera. Horretarako, Udalari urtero aurkeztu beharko dizkio enpresak kontratu hau burutzeko Amorebieta-Etxanon lanean dituen enpresako



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

langileen TC1 eta TC2 inprimakiak, behar bezala diligentziatuak. Egunean egongo ez balitz, Udala beren-beregi gaitua dago ez-egite hori zuzentzeko, adjudikaziodunaren kontura dagozkion kotizazioak egin (ordaindu beharreko gainordain eta interesekin) eta ordaindutako hurrengo hilabetean enpresari ordaindu behar zaion hileko zenbatekotik kentzeko, adjudikaziodunari ordainketa horren egiaztagiriak emango zaizkiolarik.

j) Honek eskatutako zerbitzuari buruzko datuak eman Udalari.

Adjudikaziodunak erabat gauzatutako lanak hitzartutako prezioetan kobratzeko eskubidea izango du, adjudikatutako kontratuaren, onetsitako aldaketen eta Administrazioak idatziz emandako aginduen arabera.

Udalak eskubidea dauka edozein unetan zuzendaritza eta ikuskaritza ahalmenak egikaritzeko eta kontratistari jarraibideak eman ahal izango dizkio. Jarraibide horiek derrigorrez bete beharrekoak izango dira kontratistarentzat, betiere, baimendu gabeko lanen aldaketak ekartzen ez badituzte eta kontratu honetan adostutako baldintzen eta indarrean den legediaren xedapenen kontrakoak ez badira.

10. KONTRATISTAREN LAN- ETA SOZIJETATE-BETEBEHARRAK

Kontratista behartuta egongo da indarrean diren lege xedapenak edo kontratuaren indarraldian sorturikoak betetzera lanaren, aurreikuspenaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta higienaren alorretan, kontratatutako zerbitzua ematera atxikita dauden kontratistaren mendeko langileei dagokienez. Administrazioa salbuetsita egongo da hori ez betetzeak ekar dezakeen erantzukizun orotatik eta entitate adjudikaziodunak bere gain hartuko du enpresari izaera.

Adjudikaziodunak bere gain hartuko du hari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik haren langileek izan ditzaketen istripuen erantzukizun osoa.

Jabeak adjudikaziodunari eska diezaioke, edozein arrazoiengatik, kontratu honetan aurreikusitako lanak gauzatzen diharduten langile guztien laneko betebeharrak ongi betetzearekin lotura duen edozein gai egiaztatzea.

Kontratista behartuta egongo da Bizkaiko Eraikinen eta Lokalen Garbiketa Sektorearentzako Hitzarmen Kolektiboa betetzera, baita haren soldata-berrikuspenak ere.

Era berean, kontratista behartuta egongo da *Amorebieta-Etxanoko Udalaren eta Amorebieta-Etxanoko Kirol Fundazio Publikoaren menpe dauden lokal eta eraikin publikoak garbitu eta/edo hauek artatzeko lan egiten duten langileen lan baldintza batzuei buruzko Akordioa* betetzera. Akordio horretan (baldintzen plegu honen I. Eranskinean agertzen da) Bizkaiko Eraikinen eta Lokalen Garbiketa Sektorearentzako Hitzarmen Kolektiboan adostutako oinarritzko soldataren osagarri batzuk adostu dira.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Esleipenduna behartuta egongo da lizitazioaren xede den zerbitzuaren ardura hartzean aurreko kontratistaren langile-taldean dauden langileak bere gain hartzera (baldintza teknikoen pleguaren B Eranskina), Bizkaiko Eraikinen eta Lokalen Garbiketa Sektorearentzako Hitzarmenaren Kolektiboko 28. artikuluan xedatutako subrogazio-klausulari jarraiki.

Amorebieta-Etxanoko Udalak ez du inolako lotura juridikorik, laneko harremanik edo bestelako loturarik izango adjudikaziodunaren langileekin, ez kontratuaren indarraldian, ezta kontratua amaitzean ere, eta adjudikaziodunaren konturako dira kontratuaren ondorioz sorturiko betebeharrak, kalte-ordain eta erantzukizun guztiak.

Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak 24. artikuluan eta 171/2004 Errege Dekretuak, aurrekoa garatzen duenak, agiri honi prebentzioaren arloko dokumentazioaren zerrenda eta erregistroak erantsen zaizkio (V. eranskina). Osatu ostean, itzuli beharko dira, kontratatutako lanei ekin baino lehen enpresa-jardueren koordinazio-prozedura betetzeko. Dokumentazioa osatu eta entregatzeko epea bi hilabetekoa izango da, kontratua esleitzen den unetik. Dokumentazioa entregatzeko eskakizuna epean betetzen ez bada, kontratua suntsiaraz daiteke.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, langile-taldean kontratua hasi dutenekiko aldaketaren bat egin behar den bakoitzean, dela erretiroagatik, heriotzagatik, borondatezko bajagatik, kaleratzeagatik, aldi baterako ezintasunagatik, ezintasun iraunkorragatik eta abarregatik, dela zerbitzuaren beharren ondorioz sorturiko aldaketaren batengatik, esleipenduna behartuta egongo da horren berri Udalarari ematera eta sor daitezkeen lan-postuen aldaketei erantzuna ematera.

11.- KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA

Kontratistaren ardura da zerbitzu-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, SPKLTBren 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Eragin horietarako, kontratistak erantzukizun zibileko aseguru bat hartu beharko du, kontratua betetzean hirugarrenei sortutako kalteak ordaintzeko, gutxienez, 300.000 eurokoa. Kontratistak Udalarari eman beharko dio aseguru horren kopia.

12. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio-organoak, kontratua hobetu ondoren eta interes publikoko arrazoiak medio, aldaketak hitzartu ahalko ditu, I. liburuko V. Tituluan aurreikusitako kasu eta moduan, eta SPKLTBren 211. artikuluan araututako prozeduraren arabera. Hala eginez gero, behar bezala justifikatu beharko du espedientean.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Araubideari dagokionez, SPKLTBko 105 eta 108 bitarteko artikuluetan eta 210, 219 eta 306 artikuluetan xedatutakoa beteko da.

Aldaketak egin ahal izateko, nahikoa justifikatu beharko da SPKLTBko 107 artikuluan aurreikusitako inguruabarretakoren bat gertatzen dela. Aldaketa horiek ezingo dituzte aldatu likidazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak eta, era berean, beharrezko egiten dituen kausa objektiboari erantzuteko beharrezko aldakuntzak baino ezingo dituzte sartu.

Halaber, kontratua aldatu ahal da zerbitzuaren beharrak aldatzearen ondorioz jarraian azaldutako baldintzetakoren bat gertatuz gero, baldintza teknikoen agirian zehazten den bezala, baturak urteko aurrekontuaren %20ari eragin diezaioke:

- Zentro bakoitzean egin beharreko azalera (m²), maiztasuna, lanak ala zerbitzuak handitzea edo gutxitzea, betiere aldaketak esleitutako urteko zenbatekoaren % 1,5 baino gehiago hartzen badu.
- Hasiera batean baldintza teknikoen pleguan sartuta ez dauden zentro berriak handitzea.
- Hasiera batean baldintza teknikoen pleguan sartuta dauden zentroak gutxitzea.

Lizitazioa kudeatzen duen dokumentazioan aurreikusi gabeko aldaketak badira, SPKLTBren 107 eta 108 artikuluetan ezarritakoa aplikatu behar da.

Lizitazioa kudeatzen duen dokumentazioan aurreikusitako aldaketak badira, kontratazio organoak onetsiko ditu aldaketa horiek, SPKLTBren 211 artikuluan ezarritako prozeduraren arabera, betiere.

Kasu batean zein bestean, kontratuaren aldaketa formalizatu beharko da, behin betiko bermea adostu ostean.

13. HARTZEA ETA BERME-EPEA

Kontratu honen xede diren lanak amaitutakoan, kontratua amaitzeko baldintzen eta zehaztapenen arabera, eta Administrazioak bere oniritzia emandakoan, onspen akta egingo da.

Gainera, HILABETEKO (1) berme-epea egongo da, harrera formularen egunetik hasita zenbatu beharrekoa, SPKLTBan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Berme-epe horretan egiten diren lan edo zerbitzuetan akatsak agertzen badira, esleipenduna izango da erantzulea.

Berme-epetan horretan Administrazioak eragozpenik jartzen ez badu, epea amaitutakoan esleipendunaren erantzukizuna amaitutzat joko da.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

14.- ZEHAPENAK KONTRATISTARI

Kontratatzaileak, berari lepora dakizkiokeen arrazoiak direla kausa, kontratuan zehaztutako zerbitzuren bat zati batean gauzatu bete gabe uztekotan edo udal agindu bat bete ezean (kontratuko funtsezko betebeharrak), Administrazioak aurretiaz ez du eragingo inolako intimaziorik eta Udalak hauetako edozein ahal izango du:

- a) Fidantza konfiskatuz kontratua suntsiaraztea eta, bere kasuan, kalte-galeren ordaina ematea.
- b) Zigorrak ezartzea, jarraian zehazten diren baldintzen arabera. Kontratatzaileak kontratua gauzatzeko orduan egindako hutsegiteak arinak, larriak eta oso larriak sailkatu ahal izango dira.

14.1. Arau-hausteen motak

Arau-hauste arinak:

Arau-hauste arinak izango dira baldintza teknikoen agirian eta administrazio baldintza berezian agirian jasotako baldintzak ez betetzea, arau-hauste larri edo oso larri bezala tipifikatzen direnak izan ezik.

Arau-hauste larriak:

- Adierazitako ordutegia ez betetzea.
- Adostutako langileak ez izatea.
- Udalak ikuskatzeari uko egitea edota ikuskatu nahi ez izatea.
- Indarrean dagoen araudiak ezarritako segurtasun eta osasunerako baldintzak ez betetzea, ezta ingurumenekoak ere.
- Agiriak faltsutzea
- Nahitaezko aseguruaren primen ordainketa egunean ez izatea.
- Udalak antzemandako hutsune edo irregulartasunak zuzentzeko emandako aginduak ez betetzea.
- Adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintzan agertzen diren makina, bitarteko, hobekuntzak, etab. ez izatea.
- Urtebeteko epean hiru arau-hauste arin egitea.

Arau-hauste oso larriak:

- Urtebeteko epean hiru arau-hauste larri egitea.

14.2. Isunak

Arau-hauste arina egiteagatik 150 eta 750 euro bitarteko isuna jarriko da.

Arau-hauste larri bat egitearen ondorioz 750 eta 1.500 € bitarteko isuna ezarriko da.

Arau-hauste oso larri bat egitearen ondorioz 1.500 eta 3.000 € bitarteko isuna ezarriko da



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Ordaindu beharreko zenbatekoa Udalak zehaztuko du, egindako arau-haustearen garrantzia eta Udalari nahiz hirugarrenei sortutako kalteak kontuan hartuta.

14.3. Prozedura

Arau-haustea izan daitekeen portaera gertatuz gero, kontratatzaileari isunaren proposamena jakinaraziko zaio, 10 eguneko epean bere interesen alde aukera egokiena zer den erabaki eta alega dezan. Epea amaitutakoan edo kontratistak alegazioak aurkezten dituenean, Alkateak ebatziko du. Ezarritako isunak berehala betearazleak izango dira eta dagokion fakturatik zenbateko hori kenduko da, kontratuak suntsiarazten diren kasuetan salbu, eta hori kontratazio organoan xedatuko du.

15. KONTRATUA HUTSALTZEKO ARRAZOIAK

Kontratu hau amaitzeko kausa izango dira, pleguetan zehaztu eta SPKLTBren 223. eta 308. artikuluetan ezartzen direnak.

Korporazioak kontratua amaitzea erabakiko du, espediente egokia izapidetu ondoren, interesdunari entzunaldia eginda. Era berean, zerbitzuaren prestazioa uztea, zerbitzura zuzendutako enpresaren elementuak konfiskatzea, bere prestazioa ziurtatzeko asmoz, eta kontratua berriro adjudikatzeko lizitazioaren deialdia egitea erabakiko du.

Kontratu hau bukatzean, ezin izango dira inolaz ere kontsolidatu kontratuaren xede diren lanak Administrazio kontratatzailearen langile gisa egin dituztenak.

16.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Amorebieta-Etxanoko udalak ondoko eskumenak ditu: kontratua interpretatzea, kontratua betetzeak dakartzan zalantzak argitzea, kontratua aldatzea interes publikoaren ondorioz, horren hutsaltzea adostu eta horren ondoreak zehaztea, betiere SPKLTBn ezarritako betekizunen eta ondoreen mende, baita Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritakoaren mende ere.

II. KONTRATAZIO-PROZEDURA

17.- ESLEIPEN-PROZEDURA ETA ERA



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Kontratu honen esleipena kontratazio-organoak egingo du, kontratazio-mahaiak hala proposatuta, izapidetze arruntaren eta prozedura irekiaren bidez.

Kontratua esleitzeko oinarri gisa erabilitako eskaintzen balorazio-irizpideak, modu automatikoan zenbatu ezin daitezkeen eta zenbatu daitezkeen irizpideetan berezita, garrantziaren arabera joera beherakorrarekin eta horiei atxikitako haztapenarekin antolatuta, hurrengo hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK:

<p>EZARRITAKO ZERBITZU ETA BALIABIDEEN ANTOLAKUNTZARI DAGOKION MEMORIA TEKNIKOA: (Gehenez 50 orrialde alde batetik idatziak, hizkien gutxieneko tamaina: 10; orrialdearen gehieneko tamaina: A4. Gehieneko hori gainditzen duten eskaintzak gehiegizko orrialde bakoitzeko -0,5 punturekin zigortuko dira)</p> <p>- Zerbitzuaren plangintza, antolaketa eta ikuskaritza justifikatzea.....20 puntu</p> <p>- Zerbitzuari atxikitako baliabide materialak.....3 puntu</p> <p>- Zerbitzuari atxikitako giza baliabideak2 puntu</p>	<p>0tik 25 puntura</p>
--	-----------------------------------

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEETAN LORTU BEHAR DEN PUNTUAZIOAREN GUTXIENENKO ATALASEA: SPKLTBk 150.4. artikuluan xedatutakoarekin bat, balorazio orokorrean onartuak izateko, automatikoki kuantifika ezin daitezkeen irizpideetan eskaintzaileek gutxieneko puntuazioaren atalasea lortzea eskatuko da. **Ildo horri jarraiki, kontratazio-mahaiak ez ditu kontuan hartuko 10 puntu lortzen ez duten eskaintzak.**

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU AHAL DIREN IRIZPIDEAK:

<p>ESKAINZA EKONOMIKOA: (Nahitaezko zerbitzuak) 70 puntura arte</p> <p>Puntuen banaketa honako formula honen arabera egingo da:</p> $PO = MaxP * \frac{Ob}{Ol}$ <p>Laburdurak: PO = Eskaintzaren puntuak MaxP = Gehieneko puntuak Ob = Eskaintzarik merkeena Ol = Balioztatzeke eskaintza</p>	<p>0tik 70 puntura</p>
<p>ESKAINZA EKONOMIKOA (Ohiz kanpoko zerbitzuetarako prezio unitarioa) 5 puntura arte</p> <p>Puntuak honako formularen arabera banatuko dira:</p> $PO = MaxP * \frac{Ob}{Ol}$	<p>0tik 5 puntura</p>



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Laburdurak	
PO = Balioztatu behar den eskaintzaren puntuak	
MaxP = Gehieneko puntuak	
Ob = Eskaintzarik merkeena	
OI = Balioztatzen ari den eskaintza	

Eskaintzen izaera neurrigabea edo ezohikoa ezarritako helburu diren parametroen arabera hautemango da, Herri Administrazioetako Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorraren 85. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraiki.

18.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Kontratazio-prozedura horretan pertsona fisikoek eta juridikoek parte hartu ahal izango dute, horiek espainiarrak izan zein atzerriarrak izan, betiere jarduteko erabateko gaitasuna badute eta SPKLTBren 60. artikuluan (kontratatzeko debekuak) jasotako inguruabarretatik edozein bete ez badute.

Era berean, euren kabuz edo baimendutako pertsonak ordezkatuta egin ahal izango dute, betiere horretarako egiletsitako behar besteko ahalordearekin. Pertsona juridikoaren ordezkartzan kide batek esku hartu badu, orduan horretarako gaituta dagoela agiriaren bidez egiaztatu beharko du. Kasu batean zein bestean, ordezkariaren gain aipatutako kontratatze ezgaitasun-arrazoiek eragina izango dute.

Orobat, enpresariak kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko eskatu beharreko enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute.

Europako Batasuneko Estatu Kideen enpresa ez-espainiarrek jarduteko gaitasuna Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorraren I. Eranskinean jasotako lanbide- edo merkataritza-erregistro hauetako batean inskribatutako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko dute: Europako Batasuneko Estatu Kideen eta Europako Gune Ekonomikoari buruzko Akordioaren Sinatzaileen Erregistroak.

Europako Batasunekoak ez diren Estatuko pertsona fisikoek edo juridikoek Espainiako Diplomaziako Misio Iraunkor egokiak luzatutako txostenaren bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko Estatuak aldi berean Espainiako enpresen eta Administrazioarekin nahiz SPKLTBren 3. artikuluan zenbatutako bestelako erakundeekin kontratazioa egitea onartzen duela. Hala, beharrezkoa izango da enpresa horiek Espainian bulegoa irekita izatea, eragiketak egiteko ahalduak edo ordezkariak izendatuta, eta Merkataritza Erregistroan inskribatuta egotea.

Nolanahi ere, enpresa ez-espainiarrek kontratatze gaitasuna egiaztatze aurreratu dituzten agiriak modu ofizialean gaztelaniara edo euskarara itzuli beharko dira.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Administrazioak ondore horretarako aldi baterako eratutako enpresarien elkarteak kontratatu ahal izango du (horretarako beharrezkoa izan gabe horiek eskritura publikoan formalizatzea esleipena egin arte). Hain zuzen ere, erantzukizun solidarioa izango dute Administrazioari begira, eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatuko da. Lizitatzailerik bakoitzak ezin izango du aurkeztu proposamen bat baino gehiago. Gainera, ezin izango du sinatu Aldi Baterako Elkarte gisa bestelako enpresekin, baldin eta hori bakarka egin badu, ezta Enpresen Aldi Baterako Elkarte gisa agertu ere. Printzipio hori betetzen ez bada, aurkeztutako guztiei gaitziritzia emango zaie.

19.- PROPOSAMENEN AURKEZPENA ETA ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA

Kontratazio honen espedientea, baita berari lotutako dokumentazio teknikoa ere, erakusgai egongo da Amorebieta-Etxanoko Udalaren bulegoetan, 8:30etik 14:30era, egun baliiodun guztietan, lizitazio honen iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta agertu ondoko egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Proposamenak Amorebieta-Etxanoko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dituzte, aurretik adierazitako ordutegi berean eta 40 egun naturaleko epearen barruan, kontratuaren iragarkia Europako Batasunaren Egunkari Ofizialera igortzeko egunetik zenbatuta. Eskaintzak aurkezteko azkeneko eguna larunbata edo baliogabe izanez gero, astelehen edo hurrengo egun baliioduna arte luzatuko da, hurrenez hurren.

Lizitazio hau, halaber, kontratazioko organoaren kontratatzaileraren profileen iragarriko da. Honetan sartu ahal izango da informatikako hurrengo atari edo web orri honen bidez: www.amorebieta-etxano.net.

Hautagaiak eskabidea postaz bidali badu, bidalketa-data Posta bulegoan justifikatu eta Amorebieta-Etxanoko Udalaren Erregistroan iragarri beharko du eskabidea egun berean telefax edo telegrama bidez igorri duela. Betekizun horiek bete ez badira, edo igorpenaren komunikazioa eskabideak jasotzeko epea igaro ostean jaso bada, eskabidea ez da onartuko. Egutegiko zazpi egun igaro badira aipatutako datatik eskabiderik jaso gabe, hori ez da onartuko.

Lizitatzailerik hiru gutun-azal itxi (A, B eta C) aurkeztu beharko dituzte, horrek edo ordezkariak sinatuta, eta horietako bakoitzean hau azalduko da: “AMOREBIETA-ETXANOKO UDALEKO ERAIKIN PUBLIKOEN GARBIKETA ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZESUAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”.

A gutun-azalaren azpizenburua “**KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA**” da, ondoko agiriak bilduta:

- a) Eskaintza aurkeztu duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

b) Lizitatzailerak pertsona juridikoa denean, eskaintza aurkeztu duen pertsonaren NANaz gain, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutako eraketa-, edo, hala denean, aldaketa-eskritura eta identifikazio fiskaleko zenbakia, baldin eta inskripzioa aplikatu beharreko merkataritza-legeriaren arabera eskatu behar bada. Europako Batasuneko Estatu Kideen enpresari ez-espainiarrak direnean, inskripzioa lanbide- edo merkataritza-erregistroan inskribatuta egon beharko da, betiere betekizun hori kasuan kasuko Estatuaren legeriak hala eskatu badu.

c) Lizitatzailerak bere izenean jarduten ez badu, edo hori sozietatea edo pertsona juridikoa denean, proposamen ekonomikoa sinatu duenak kontratazio-organoaren aurrean jarduteko behar besteko ahalordea duela eta horrekin bere izenean nahiz kasuan kasuko pertsonaren edo erakundearen ordezkari gisa kontratatzeko behar besteko ahalordea duela egiaztatzeke agiri sinesgarriak aurkeztu beharko ditu.

d) Kontratista **U TALDEA, 1 AZPITALDEA, 3 KATEGORIAN** sailkatuta (behar bestekoa eta iraungi gabe) dagoela egiaztatzen duen agiria, 1098/2001 Errege Dekretuaren 37 eta 38. artikuluetan xedatutakoa aintzat hartuta. Halaber, 1098/2001 Errege Dekretuaren Xedapen Iragankor Bakarrean xedatutakoaren arabera, aldi baterako eta iraungi arte, baliozkoak izango dira 1098/2001 Errege Dekretu hori indarrean jarri baino lehenagoko arauketaren arabera egiletsitako sailkapen-ziurtagiriak.

Bestela, kaudimen ekonomikoa onartu eta merkataritza-erregistroan ala dagokion erregistro ofizialean gordailatu diren urteko kontuen bitartez egiaztatuko da. Aipatu kontuetan azkeneko hiru ekitaldi amaituetatik gutxienez batean negozioaren urteko bolumena 594.000 eurokoa edo hortik gorakoa izan dela egiaztatu beharko da.

Era berean, kaudimen teknikoak izaera bereko lanen zerrendarekin egiazta daiteke, interesdunak horiek azkeneko bost urteetan egin baditu. Zerrendari organo eskudunak igorri ostean behar bezala gauzatu direla adierazten duten ziurtagiriak erantsiko zaizkio Nolanahi ere, gauzatzeko handiena izan den urteko zenbateko metatuta gutxienez 277.200 eurokoa izango da. Izaera berekotzat joko da betiere U taldearen eta 1 azpitaldearen barruan sailka badaiteke, 1098/2001 Errege Dekretuak 37. eta 38. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

e) Kontratatzeko debekuetan ez dela ageri baieztatzen duen esanbidezko adierazpen arduratsua. Lizitatzailerak, SPKLTBren 73.1 artikuluan ezarritako baliabideetatik edozeinen arioren, SPKLTBn 60. artikuluan aipatutako inguruabarretatik edozein bete ez dutela adierazi beharko dute. Bada, V. Eranskin gisa erantsitako ereduak erabili ahal izango da. Europako Batasuneko Estatu kideak direnean edo Europako Gune Ekonomikoaren sinatzaileak direnean, adierazpena SPKLTBren 73.2 artikuluan ezarritakoaren arioren egin ahal izango da.

Lizitzaileen Erregistroak luzatutako ziurtagiriaren bidez egindako egiaztapena. Aurretik aipatutako agiri guztien ordez, a) atalean jasotakoa izan ezik, ondoko erregistroetatik edozeinek luzatutako ziurtagiria ezarri ahal da: Bizkaiko Lurralde Historikoko Lizitzaileen Erregistroak; Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Erregistro Ofizialak; Estatuko Lizitazaien eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak; Erkidegoaren sailkapen-ziurtagiria.

Kasuan kasuko erregistroak aurkeztutako ziurtagirian jasotako inguruabarrei dagokienez, eskatutako agirien egiaztagiria aurkeztuko da.

Edozein kasutan ere, ziurtagiriarekin batera lizitazaiak egindako adierazpen arduratsua aurkeztu beharko da. Adierazpen horretan ziurtagiri egokian jasotako inguruabarrek inolako aldaketarik jasan ez dutela azpimarratuko da.

f) Enpresari batzuk lizitazioan Enpresen Aldi Baterako Elkartea eratuta esku hartu badute, horietako bakoitzak jarduteko gaitasuna aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko du. Era berean, proposamenean ABEE bakoitzak egin beharreko xedearen zatia adieraziko dute, horien guztien kaudimen-betekizunak zehaztu eta egiaztatzeko. Elkarite hori Administrazioaren aurrean eraginkorra izan dadin, nahikoa izango da proposamen-idazkian hori sinatu duten enpresarien izenak eta parte-hartzea eta horietako bakoitzaren partaidetza zehaztea, bai eta kontratuaren indarraldian Administrazioaren aurrean ordezkari gisa jardungo duen pertsonaren edo erakundearen izendatzea ere. Hain zuzen ere, Amorebieta-Etxanoko Udalaren aurrean erantzukizun solidarioa izango du. Lizitazioa enpresen elkarteari esleitu zaionean bakarrik horiek egiaztatu beharko dute horren eraketa eskritura publikoaren bidez kontratazio-organismoaren aurrean, betiere elkartearen ordezkaria edo ahaldun bakarra behar besteko ahalordeekin izendatuta, eskubideak egikaritu eta kontratuaren betebeharrak betetzeko hori iraungi bitartean. Enpresarien Aldi Baterako Elkarteen iraupena kontratua iraungi arte izango da.

g) Atzerriko enpresen kasuan, mota guztietako ordenetako Espainiako Epaitegien nahiz Auzitegien jurisdikzioaren mende jartzeko adierazpena, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitezkeen intzidentziei begira, eta, hala denean, jurisdikzio-foruari uko eginda.

B gutun-azalak azpitolulutzat “AUTOMATIKOKI ZENBATU EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEAK” izango du eta eskaintzak balioztatzeko irizpideak, agiri honen 17. baldintzan adierazita, betetzea egiaztatzen duten agiriak jasoko ditu:

- a) **Ezarritako zerbitzu eta baliabideen antolakuntzari dagokion txosten teknikoa;** txostenak, gutxienez, zehaztuak eta balioztatuak izango diren alderdi guztiak izan beharko ditu eta **baldintza teknikoen agiriaren A. Eranskinen taulak** ere, zentro bakoitzarentzat behar bezala osatuta, izan beharko ditu.

C gutun-azalaren azpizenburua “MODU AUTOMATIKOAN ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK” da, ondoko edukiarekin:

- a) Agiri honen VI. Eranskin gisa erantsitako eredura doitutako **proposamen ekonomikoa** (zerbitzuaren urteko prezioa eta ezohiko zerbitzuentzat unitate prezioa).



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

- b) **Azterketa ekonomikoa.** Bertan justifikatuko dira: aurkeztutako proposamen ekonomikoa eta ezohiko zerbitzuentzat unitate prezioa. Bestetik, baldintza teknikoen agiriaren **C. Eranskinaren eskaintza ekonomikoaren laburpena zatituta** ere edukiko du.

Gutun-azal bakoitzaren edukia errespetatzen ez duten eskaintzak baztertuak izango dira ez baldin badituzte modu automatikoan kuantifikatu daitezkeen irizpideei eta modu automatikoan kuantifikatu ezin diren irizpideei dagozkien agiriak behar bezala desberdindu.

Administrazioak, dela esleipenaren aurretik dela esleipenaren ostean, eta kontratuaren aribidean, A, B eta C gutun-azaletan jasotako agirien edukien egitasuna egiaztatu ahal izango du. Izan ere, enpresak aurkeztutako edozein datu eta inguruabar faltsuak izanez gero, kontratua deuseztatuko da, kontratistari egotzi dakiokeen ez-betetzearen ondorioz, behin betiko bermea galduta, edo, hala denean, bermerik eratu ez bada, horren zenbatekoaren kalte-ordaina ordainduko dio. Gainera, Administrazioari ere konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen duten kalte-galeren kalte-ordaina ordaindu beharko dio.

Kontratua esleitu ondoren eta behin errekurtsioak aurkezteko epea igarota, horiek formalizatu gabe, proposamenekin batera aurkeztutako agiriak adjudikaziodun izan ez diren interesdunen esku geratuko dira. Data horretatik aurrera, **itzulketa-eskabidea hilabeteko epean bete ez bada, hori suntsitu egingo da.**

Lizitatzailerak eskatutako agiriak jatorrizkoan aurkeztu ahal izango dituzte edo, bestela, hauen kopia, notario batek edo Administrazioak behar bezala benetakotuta.

20.- AGIRIEN KALIFIKAZIOA, ENPRESEN HAUTESPENA ETA PROPOSAMENEN IREKIERA

20.1. Agirien kalifikazioa, ongitu daitezkeen akatsak.

Proposamenak aurkezteko epea igaro ondoren, kontratazio-mahaiak lizitatzailerak aurkeztutako administrazio-agiriak ireki eta egiaztatuko ditu, bai epean bai forman, hots, A gutun-azala.

Aurkeztutako agirian ongitu daitezkeen akatsak edo ez-betetzeak antzeman badira, orduan interesdunei fax edo posta elektronikoko bidez komunikatuko die, eta, gehienez ere, 3 egun baliioduneko epea izango dute komunikazioa egiten denetik zenbatuta, antzemandako akatsak ongitu ahal izateko.

Agirian ongitu ezin daitezkeen funtsezko akatsak edo gorabeherak ageri badira, proposamena baztertu egingo da.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Lan horiek amaitu ondoren, kontratazio-mahaiak lizitazioari begira onartutakoen, baztertutakoen eta bazterketa horren arrazoien gaineko esanbidezko adierazpena egingo du.

20.2. Proposamenen irekiera.

Lehen ekitaldia. B GUTUN-AZALEAN: MODU AUTOMATIKOAN ZENBATU EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEAK jasotako agiriak. Gutun-azala egintza publikoan irekiko da Amorebieta-Etxanoko Udalari dagokion kontratugilearen profilean adierazitako egunean eta orduan.

Ekitaldi honetan aurkeztutako proposamenen, lizitatzailen izenaren, agiriak kalifikatzeko emaitzaren, eta, hala denean, akatsen ongitzearen berri emango da. Ostean, mahaiak eskaintza teknikoak jasotzen dituen gutun-azalak ireki ahal izango ditu, aurkezpenaren hurrenkera aintzat hartuta, eta horietako bakoitzaren edukia azalduko du.

Jardundako guztia agirietan jasoko da.

Bigarren ekitaldia. Balorazioa egin ostean, eta hala denean, txosten teknikoa igorrita, ekitaldi publiko berrirako deialdia egingo da, eta hori Amorebieta-Etxanoko Udalaren kontratatzailearen profilean adierazitako egunean eta orduan egingo da.

Lehenbizi, modu automatikoan zenbatu ezin daitezkeen irizpideen balorazioaren emaitza ezagutaraziko da.

Kontuan hartu behar da, SPKLTBren 150.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, ebaluazio orokorrerako onartuak izateko, automatikoki zenbatu ezin daitezkeen irizpideetan, lizitatzailerek gutxieneko puntuazioa lor dezatela eskatuko dela; kontratazio-mahaiak ez ditu aintzat hartuko 10 puntutik beherako puntuazioa lortzen duten eskaintzak.

Bigarrenez, C GUTUN-AZALEAN: MODU AUTOMATIKOAN ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK jasotako agiriak irekiko dira, eta ondoren, proposamen ekonomikoak irakurriko dira.

Eskaintzarik abantailatsuenen artean berdinketa izanez gero, kontratua eskaintza ekonomiko merkeena aurkeztu duen eskaintzaileari esleituko zaio. Hala ere, oraindik berdinketak jarraitzen badu, kontratua zozketaren bidez esleituko da eta hori kontratazio-mahaiak egingo du.

Jarraian, eta aurretiaz txosten egokiak eginda, kontratazio-mahaiak kontratua esleitzeko proposamena hori egin behar duen kontratazio-organoari helaraziko dio.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

21.- ESKAINTZEN SAILKAPENA, ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

21.1. Eskaintzen sailkapena.

Kontratazio organoak gehienetik gutxienerako hurrenkeran sailkatuko ditu aurkeztu diren proposamenak, betiere, proposamen horiek normalak ez diren balioak edo neurritz kanpoko balioak dituztela irizten ez bada. Horretarako, kontuan hartuko ditu pleguan adierazitako esleipen irizpideak eta egoki iriztitako txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu.

Kontratazio organoak eskaintza abantailatsuena egin duen lizitatzailerari eskatuko dio, hamar egun balioduneko epean, eskakizuna jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, ondoren zehazten diren ziurtagiriak aurkezteko:

- Indarreko xedapenen arabera ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren betebeharrak eguneratuta dituela adierazten dituzten agiriak aurkeztea.
- Kontratua esleitzeko zenbatekoaren %5eko behin betiko bermea eratzea (BEZa kanpo).
- Erantzukizun zibilaren polizaren Kopia, 300.000 eurokoak, kontratatutako zerbitzua betetzean sortutako arriskuak estaliko ditu.
- Adjudikazioduna ABEE bat denean, goian aipatutako agiriez gain, epe berean, eraketaren eskritura publikoa, Aldi Baterako Elkarteari atxikitako IFK eta behar besteko ahalordea duen ordezkariaren edo ahaldunaren izendapena jaso beharko da.

Adierazitako epean eskaera ez bada behar bezala betetzen, lizitatzailerak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da. Kasu horretan, eskaintzen sailkapen ordenari jarraituz, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzailerari.

Bestalde, esleipendunak publizitate-gastuak ordaindu beharko ditu (gehienez 900 €).

21.2. Kontratu esleipena.

Kontratazio-organoak eskatutako dokumentazioa jaso eta egutegiko bost eguneko epean kontratua esleituko du. Halaber, esleipena sei hilabeteko epean abantailarik handiena eskuratu duen proposamenari egingo zaio, proposamenak irekitzen diren egunaren biharamunetik zenbatuta (B gutun-azalak).

SPKLTBren 161 artikuluan aurreikusten denez, epe hori egutegiko 15 egunetan luzatuko da 152.3 artikulua zehaztutako tramiteak jarraitu behar direnean, balio anormalak edo neurritz gainekoak dituzten eskaintzen kasuan.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Eskaintza anormaltzat edo neurritz gainekotzat jotzen denean eskaintzaileari (edo eskaintzaileei, hala dagokienean) entzungo zaio, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa egin beharko du.

Kasu honetan, eskaintzaileak emandako arrazoiak eta txostenak aintzat hartuta, Kontratazio Organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen eskaintzaileari egingo dio esleipena, beti ere Administrazioaren lanak egiteko gaitasuna duela; bestela, anormaltzat edo neurritz gainekotzat jotzen ez den proposamenari egingo zaio esleipena.

Halaber, ezarritako epeak igaro badira eta ebazpen-erabakirik eman ez bada, interesdunek eskaintzak atzera bota ahal izango dituzte, baita, hala denean, gordailututako bermeak ere.

Kontratazio-organoak ezin izango du adierazi lizitazioa hutsala dela, baldin eta eskaintza edo proposamen onargarria badago, agirian jasotako irizpideak aintzat hartuta.

Kontratuaren esleipena, ziodun ebazpenaren bidez, erabaki eta gero, lizitatzzaileei jakinaraziko zaie. Aldi berean, esleipena kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean sinatzeko epea zehaztuko da, SPKLTBren 156.3 artikuluaekin bat etorriz.

21.3. Kontratua sinatzea.

Sinatu egiten denean gauzatuko da kontratua.

Kontratuari kontratazio arloko errekurtsio berezia ez bazaio aplikagarri, kontratua hamabost egun balioduneko epean sinatuko da, adjudikazioa jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, SPKLTBren 151.4 artikulua xedatutakoari jarraiki.

Kontratuari kontratazio gaitako errekurtsio berezia jarrai ahal bazaio, kontratu hori ezingo da sinatu, harik eta lizitatzzaileei esleipenaren jakinarazpena igortzen zaienetik hamabost egun baliodun iragan arte.

Epe hori igarota, betiere kontratua sinatzeko etena eragiten duen errekurtsorik jarri ez bada, edo, hala badagokio, errekurtsioa ebazteko eskumena duen organoak etenaldia bertan behera uztea erabakiz gero, adjudikaziodunak kontratua sinatu beharko du, gehienez, bost eguneko epean, sinatzeko errekerimendua jaso eta biharamunetik aurrera.

Kontratua ezin izango da burutzen hasi aurretiaz sinatu barik, premiazko edo presazko izaeraz izapidetutako espedientea izan ezik.

Adjudikaziodunak, goian aipaturiko eta dagokion epean, kontratua formalizatzeko administrazio-agiria sinatu beharko du, eta horri administrazio-klausulen agiriaren alea erantsiko zaio.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Kontratistak aurkeztutako eskaintzak kontratu-balioa du, hobekuntzei, proposamenei eta kontratuaren burutzapenean eragina izan dezaketen bestelako alderdiei begira, ezarritako balorazio irizpideen arabera, kontratuaren esleipenerako erabakigarriak izan direnak.

Kontratua formalizatuta jasotzen duen agiria beti administrazio-agiria izango da, eta erregistro publiko orotan sartzeko baliozko titulua izango da. Bestalde, kontratua eskritura publikoan formalizatuko da, betiere kontratistak hala eskatu badu, eta horrek egilespenaren ondorioz sortutako kostuak ordainduko ditu. Kasu horretan, kontratistak kontratazio-organoari kopia eskuetsia emango dio.

III.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

22.- IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Agiri honen arabera egindako kontratuak administrazio-izaera izango du, eta bertan jaso ez den zatiari dagokionez, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuan, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatu duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuan, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean, SPKLTBren aurka ez dagoen guztian eta Herri Administrazioen kontratazioari buruzko gainerako arauetan xedatutakoa aplikatuko da.

Administrazio-klausula berezien agiri hau eta espedienteari erantsitako gainerako agiri teknikoak bat ez badatoz, agiri honetan xedatutakoa aplikatuko da.

23.- ERABAKIAK BERRAZTERTZEA ETA AUZITEGI ESKUDUNAK

Prozedura honi jarraiki egin den kontratua administratiboa da. Kontratazio-organoak indarraldian interpretazio, aldaketa, ondorio eta iraungitzeari buruz sortzen diren gaiak ebazteko ahalmena du bere mugen barruan eta Legeak aipatzen dituen baldintzen arabera.

Kontratuari kalkulaturako balioa 209.000 eurotik gorakoa denez eta SPKLTBak II. eranskineko 1 eta 16 kategorien bitartean kokatzen duenez, aipatu Legeak 40. artikuluan xedatutakoaren babesean, kontratazioaren arloan errekurso berezia jar daiteke:

Kontratazioak bete behar dituen baldintzak azaltzen dituzten lizitazio-iragarkiak, agiriak eta kontratu-dokumentuak.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Esleipen-prozeduran hartutako izapide-ekintzak, betiere horiek zuzenean edo zeharka erabakitzen badute esleipena, prozedurarekin aurrera jarraitzea zehazten badute edo eskubide edo legezko interesen kontrako kalte konponezin edo defentsa-gabetasunik eragiten badute. Prozedurarekin aurrera jarraitzeko ezintasuna zehazten duten tramite-ekintzat hartuko dira lizitatzailleak kanpoan uzteko erabakiak hartzen dituzten Kontratazio Mahaiaren ekintzak.

Aginte adjudikatzailleek hartutako adjudikazio-erabakiak.

Ezin daiteke errekurtsio berezia jarri, egintzetan agirian aurrez ikusiak ez dauden kontratu aldaketak egiten badira, SPKLTBak 105. artikulutik 107. artikulura bitartean xedatutakoarekin bat, kontratua esleitu ostean beharrezkoak izanez gero. Halakoetan berdina da suntsitzea eta lizitazio berria egitea erabakitzen al den.

Errekurtsioa ausazkoa da eta Euskal Autonomia Erkidegoko kontratu-errekurtsioei buruzko administrazio-organoren aurrean hamabost lanegunen buruan aurkeztu ahal izango da, SPKLTBk 44. artikuluan xedatutakoarekin bat zenbatu ondoren. Horretarako, aldez aurretik idatziz kontratazio-organuari jakinaraziko zaio. Ebazpena zuzenean betearazlea izango da eta bakarrik administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jar daiteke.

Kontratazio-organoren egintzen kontra ezin badaiteke errekurtsio berezia jarri edo LPKLTBren 40. artikuluan ez dauden kontratu-tako egintzak berehala betearazleak izango dira eta administrazio-bidea amaituko dute. Ebazpen horien kontra hilabeteko epean ausaz berraztertze errekurtsioa jar daiteke. Epea ebazpenaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Bestela, zuzenean kontra egin daiteke administrazioarekiko auzi-jurisdikzioaren aurrean.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

I. ERANSKINA: AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAREN ETA AMOREBIETA-ETXANOKO KIROL FUNDAZIO PUBLIKOAREN MENPE DAUDEN LOKAL ETA ERAIKIN PUBLIKOAK GARBITU ETA/EDO HAUEK ARTATZEKO LAN EGITEN DUTEN LANGILEEN LAN BALDINTZA BATZUEI BURUZKO AKORDIOA

BALDINTZAK

LEHENENGOA: Akordio honek IMPACTO S.L. enpresaren aginduetara Amorebieta-Etxanoko Udalaren zein Amorebieta-Etxanoko Kirol Fundazio Publikoaren lokal zein eraikinetan garbiketa eta/edo artapen zerbitzuak ematen dituzten langileei bakarrik eragingo die. Era berean, akordioak eragingo die helburu berdinerako etorkizunean egin daitezkeen kontratuen adjudikaziodun den enpresarentzat etorkizunean lan egin dezaketen langileei.

BIGARRENA.- Edozein kasutan, akordio honen arabera gutxieneko ordainsari baldintzak indarrean egongo dira 2009ko irailaren 1etik aurrera.

HIRUGARRENA.- Gainerako lan baldintzak, arlo ekonomiko edo lansariari buruzkoak izan zein ez eta akordio honetan ez badira aipatzen, aplikatu daitezkeen hitzarmen kolektiboan xedatutakoaren arabera arautuko dira, hau da, Amorebieta-Etxanoko Udaleko eraikin eta lokal publikoetan zerbitzuak ematen dituzten enpresetako langileen kasuan, Bizkaiko Eraikin eta Lokalen Garbiketa sektorerako Hitzarmen Kolektiboan edota Amorebieta-Etxanoko Kirol Fundazio Publikoko eraikin eta lokaletan zerbitzuak ematen dituzten enpresetako langileen kasuan, Bizkaiko Lokal eta Kirol Zelaletako sektorerako Hitzarmen Kolektiboan.

LAUGARRENA: Akordio honen bidez, Amorebieta-Etxanoko Udalaren zein Amorebieta-Etxanoko Kirol Fundazio Publikoaren lokal zein eraikinetan garbiketa eta/edo artapen zerbitzuak ematen dituzten langileak, agiri honen LEHENENGO baldintzan deskribatzen den taldearen barruan daudenak, 2009ko irailaren 1etik aurrera oinarritzko ordainsari orokor bat jasoko dute. Zenbateko honek bere osotasunean Gizarte Segurantzaren kotizatuko du eta ondokoak biltzen ditu:

1.- Oinarritzko soldata: Bizkaiko Eraikin eta Lokalen Garbiketa sektorerako Hitzarmen Kolektiboan edota Bizkaiko Lokal eta Kirol Zelaletako sektorerako Hitzarmen Kolektiboan, langileek Amorebieta-Etxanoko Udaleko eraikin edo lokaletan lan egiten duten edota Amorebieta-Etxanoko Kirol Fundazio Publikoan lan egiten dutenaren arabera; kategoria profesional bakoitzarentzat adostutako oinarritzko soldata izango da.

2.- Soldataren osagarria: Honen zenbatekoa aldatu egingo da ondoko inguruabarren arabera:

A) 2009ko irailaren 1etik 2009ko abenduaren 31ra arte



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Amorebieta-Etxanoko Udalaren eta Amorebieta-Etxanoko Kirol Fundazio Publikoaren menpe dauden lokal eta eraikin publikoak garbitu eta/edo hauek artatzeko lan egiten duten adjudikaziodun suertatu den enpresaren edo enpresen langileek, lanaldi osoa lan egiten badute, **EHUN ETA HAMAIIKA euro eta HAMAIIKA zentimo (111,11 €)** jasoko dituzte ordainketa bakoitzean, bai hileko ohikoak izan zein ezohikoak, betiere aipatu dataren eta 2009ko abenduaren 31 artean sortzen badira.

Kopuru hau kontsolidatu egingo da Soldataren Osagarri bezala eta nominan izen horrekin agertuko da, baldintza honen 1. atalean deskribatutako Oinarrizko Soldata eta Antzintasuna, egongo balitz, osatuz zein lansariarekin zerikusia duen beste edozein kontzeptu edota lansariarekin zerikusia ez duena, kasu konkretu bakoitzean sor badaiteke aplikatzen den hitzarmenaren arabera.

B) 2010eko irailaren 1etik 2010eko abenduaren 31ra arte, ondokoa desberdinduko da:

b´) Amorebieta-Etxanoko Udalaren lokal eta eraikin publikoak garbitzeko zerbitzua emateko adjudikaziodun suertatu diren enpresa edo enpresen langileak, lanaldi osoa lan egiten badute, **BERREHUN ETA HOGEITA BI EURO ETA HOGEITA BI ZENTIMO (222,22 €)** jasoko dituzte eta kopuru honi gehitu behar zaio 2010. urtean langile horien lansariak izan dezaketen igoera, Bizkaiko Eraikin eta Lokalen Garbiketarako Hitzarmen Kolektiboan xedatutakoaren arabera. Kopuru hau ordainketa bakoitzean (15) jasoko dute, bai hileko ohikoak izan zein ez ohikoak, betiere aipatu Hitzarmen Kolektiboaren arabera sortzen badira.

b´´) Amorebieta-Etxanoko Fundazio Publikoaren lokal eta eraikin publikoak garbitzeko zerbitzua emateko adjudikaziodun suertatu diren enpresa edo enpresen langileak, lanaldi osoa lan egiten badute, **BERREHUN ETA HOGEITA BI euro ETA HOGEITA BI zentimo (222,22 €)** jasoko dituzte eta kopuru honi gehitu behar zaio 2010. urtean langile horien lansariak izan dezaketen igoera, Bizkaiko Lokal eta Kirol Zelaien sektorerako Hitzarmen Kolektiboan xedatutakoaren arabera. Kopuru hau ordainketa bakoitzean (15 edo 16) jasoko dute, bai hileko ohikoak izan zein ezohikoak, betiere aipatu Hitzarmen Kolektiboaren arabera sortzen badira, apirilaren 15eko ezohiko ordainketan ez delarik jasoko.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Kasu bietan, **b´)** eta **b´´)**, kopuru honek, a) atalean adierazitakoa ere jasotzen duena, kontsolidatu egingo da Soldataren Osagarri bezala eta nominan izen horrekin agertuko da, baldintza honen 1. atalean deskribatutako Oinarrizko Soldata eta Antzinasuna, egongo balitz, osatuz zein lansariarekin zerikusia duen beste edozein kontzeptu edota lansariarekin zerikusia ez duena, kasu konkretu bakoitzean sor badaiteke aplikatzen den hitzarmenaren arabera.

C) 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera, ondokoa desberdinduko da:

c´) Amorebieta-Etxanoko Udalaren lokal eta eraikin publikoak garbitzeko zerbitzua emateko adjudikaziodun suertatu diren enpresa edo enpresen langileak, lanaldi osoa lan egiten badute, **HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU EURO ETA HOGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (333,33 €)** jasoko dituzte eta kopuru honi gehitu behar zaio 2011. urtean garbitzaile horien lansariak izan dezaketen igoera, Bizkaiko Bulego eta Lokalen Garbiketarako Hitzarmen Kolektiboan xedatutakoaren arabera. Kopuru hau ordainketa bakoitzean (15) jasoko dute, bai hileko ohikoak izan zein ezohikoak, betiere aipatu Hitzarmen Kolektiboaren arabera sortzen badira.

c´´) Amorebieta-Etxanoko Fundazio Publikoaren lokal eta eraikin publikoak garbitzeko zerbitzua emateko adjudikaziodun suertatu diren enpresa edo enpresen langileak, lanaldi osoa lan egiten badute, **HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU euro eta HOGEITA HAMAHIRU zentimo (333,33 €)** jasoko dituzte eta kopuru honi gehitu behar zaio 2011. urtean langile horien lansariak izan dezaketen igoera, Bizkaiko Lokal eta Kirol Zelaiaren sektorerako Hitzarmen Kolektiboan xedatutakoaren arabera. Kopuru hau ordainketa bakoitzean (15 edo 16) jasoko dute, bai hileko ohikoak izan zein ezohikoak, betiere aipatu Hitzarmen Kolektiboaren arabera sortzen badira, apirilaren 15eko ezohiko ordainketan ez delarik jasoko.

Kasu bietan, **c´)** eta **c´´)**, kopuru honek, a) eta b) ataletan adierazitakoa ere jasotzen duena, kontsolidatu egingo da Soldataren Osagarri bezala eta nominan izen horrekin agertuko da, baldintza honen 1. atalean deskribatutako Oinarrizko Soldata eta Antzinasuna, egongo balitz, osatuz zein lansariarekin zerikusia duen beste edozein kontzeptu edota lansariarekin zerikusia ez duena, kasu konkretu bakoitzean sor badaiteke aplikatzen den hitzarmenaren arabera.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

BOSGARRENA: Amorebieta-Etxanoko Udalaren edota Amorebieta-Etxanoko Kirol Fundazio Publikoaren lokal eta eraikin publikoak garbitzeko zerbitzua emateko kontratuaren adjudikaziodun suertatu den edo diren enpresetako langileek, zati bateko lanaldia dutenak, aurreko baldintza epealdi zehatzerako adierazitakoaren antzeko soldata osagarria jasoko dute baina betiere euren lanaldia lanaldi osoarekin alderatu eta dagokion proportzioan.

SEIGARRENA.- Sektore bakoitzeko Hitzarmen Kolektiboan xedatutakoa dena delakoa ere, akordio honek eragiten dien langileak aldi baterako ezintasun egoeran daudenean, aurreko baldintzetan aurreikusitako soldata osagarria Bizkaiko Eraikin eta Lokalen Garbiketa sektorerako Hitzarmen Kolektiboaren 21. art.an xedatutakoaren ildotik arautuko da.

ZAZPIGARRENA: Amorebieta-Etxanoko Udalaren eta Amorebieta-Etxanoko Kirol Fundazio Publikoaren lokal eta eraikin publikoak garbitzeko zerbitzua emateko kontratuaren adjudikaziodun diren enpresa edo enpresetako langileek 2006ko irailaren 1etik aurrera antzintasuna dela-eta jaso ahal izango dituzten kopuruak, edozein kasutan ere, Bizkaiko Eraikin eta Lokalen Garbiketa Sektorerako Hitzarmen Kolektiboan edota Bizkaiko Lokal eta Kirol Zelaien Hitzarmen Kolektiboan ezarritako ehunekoen arabera aplikatuko da, eragiten dion taldearen arabera. Kalkulatzeko beti ondokoa kontuan izango da: oinarritzko soldataren batura, LAUGARREN Baldintzaren 1. atalean deskribatzen dena eta dagokion kasuko eta epealdiko Soldata Osagarria, jadanik aipatutako LAUGARREN Baldintzako 2. atalean deskribatuta dagoena.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

II. ERANSKINA: ABALAREN EREDUA

..... erakundeak (kreditu-erakundearen edo elkarren bermerako sozietatearen izena), IFZ duena, helbidea (jakinarazpenak eta agindeiak jasotzeko) duena,n, eta bere izenean (ahaldunen izen-abizenak) jardunda, egintza honetan behartzeko behar besteko ahalordeekin, agiri honen beheko aldean aipatutako ahalordeen askiestea kontuan izanda,

ONDOKOA ABALATU DU

..... (abalatuaren izen-abizenak edo sozietatearen izena), IFZ duena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 95. artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta, **AMOREBIETA-ETXANOKO UDALEKO ERAIKIN PUBLIKOEN GARBIKETA ZERBITZUA** betearazteko xedea jasotzen duen kontratuaren esleipena egin ahal izateko, Amorebieta-Etxanoko Udalaren aurrean, zenbatekoarekin (letretan eta zenbakietan).

Erakunde abal-emaileak Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorraren 56.2 artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituela adierazi du. Abal hori modu solidarioan eman da behartu nagusiari begira, eskusio onurari beren beregi uko eginda, eta Gordailuen Kutxa Orokorraren edo gainerako Herri Administrazioen organo baliokidearen lehenengo agindeia ordaintzeko konpromisoa hartuta, betiere Herri Administrazioen kontratuei buruzko legerian, horien garapen-arauetan eta Gordailuen Kutxa Orokorraren arauketa arautzailean ezarritako baldintzen mende.

Abal horrek Amorebieta-Etxanoko Udalak edo horren izenean legez horretarako gaitutakoak horren ezereztea edo itzulketa baimendu arte indarrean iraungo du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan eta legeria osagarrian ezarritakoari helduta.

Berme-agiri hau data berean Abalen Erregistro berezian inskribatu da zenbakiarekin.

.....(e)n, 2016koaren(e)(a)n

(Erakundearen izena)
(Ahaldunen sinadura)

C.G.D.ko AHOLKULARITZA JURIDIKOAREN EDO ESTATUKO
ABOKATUTZAREN AHALORDEEN ASKIESTE
(Probintzia/Data/Kodearen zenbakia)



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

III. ERANSKINA: KAUZIO-ASEGURUAREN ZIURTAGIRI-EREDUA

..... erakundeak (aseguratzailearen izena), zenbakiko ziurtagiria duena (aurrerantzean aseguratzailerak), helbidea eta IFZ dituen, eta bere izenean (ahaldunen izen-abizenak) jardunda, egintza honetan behartzeko behar besteko ahalordeekin, agiri honen beheko aldean aipatutako ahalordeen askiestea kontuan izanda,

ONDOKOA ASEGURATU DU

..... (aseguratuaren izen-abizenak edo sozietatearen izena),IFZ duena, aseguru-hartzaile gisa, Amorebieta-Etxanoko Udalaren aurrean, (aurrerantzean aseguraturak), zenbaterako iritsi arte (letretan eta zenbakietan), Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan, garapen-arauetan eta **AMOREBIETA-ETXANOKO UDALEKO ERAIKIN PUBLIKOEN GARBIKETA ZERBITZUA** betearaztearen xedea jaso duen kontratua arautu dituen administrazio-klausula berezien agirian jasotako baldintzen mende, BEHIN BETIKO BERME gisa, aseguratuari begira aurretik aipatutako arauen eta gainerako administrazio-baldintzen arabera sortutako kalte-galerei aurre egin ahal izateko.

Aseguratzaileak adierazi du Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorraren 57.1 artikuluan eskatutako betekizun guztiak betetzen dituela.

Primaren ordainketa egin ez bada, dela bakarra, lehenengoa dela ondorengoak, horrek ez dio emango eskubiderik aseguratzailerari kontratua ebazteko, eta hori ez da geratuko azkenduta, ezta aseguratzaileraren estaldura etenda edo betebeharretik aske geratuko ere. Izatez, aseguratzailerak bermea gauzatu beharko du.

Aseguratzaileak ezin izango dio eragotzi aseguratuari begira aseguru-hartzailearen aurka ezarri ditzakeen salbuespenak.

Aseguratzaileak aseguratuari Gordailuen Kutxa Orokorraren edo gainerako Herri Administrazioen organo baliokidearen lehenengo agindeia ordaintzeko konpromisoa hartu du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan eta gainerako garapen-arauetan ezarritako baldintzen mende.

Kauzio-aseguru horrek Amorebieta-Etxanoko Udalak edo horren izenean legez horretarako gaitutakoak horren ezereztea edo itzulketa baimendu arte indarrean iraungo du, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legean eta legeria osagarrian ezarritakoari helduta.

.....(e)n, 2016koaren(e)(a)n

(Erakunde aseguratzaileraren izena)
(Ahaldunen sinadura)

C.G.D.ko AHOLKULARITZA JURIDIKOAREN EDO ESTATUKO
ABOKATUTZAREN AHALORDEEN ASKIESTEA
(Probintzia)



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

IV. ERANSKINA: LAN-ARRISKUEI BURUZKO PREBENTZIOAREN LEGEA BETETZEKO AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA

KONTRATETARAKO DOKUMENTAZIOA

Zuekin egingo dugun kontratazioaren inguruan Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak 24. artikuluan eta 171/2004 Errege Dekretuak, aurrekoa garatzen duenak, xedatutakoa betez, lan-zentroaren titularrak zaretenez, agiri honi prebentzioaren arloko dokumentazioaren zerrenda eta erregistroak eransten zaizkio. Osatu ostean, itzuli beharko dira, kontratatutako lanei ekin baino lehen enpresa-jardueren koordinazio-prozedura betetzeko.

ENPRESA KONTRATATUAK ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA (markatu eskatutakoa)	
"Zerbitzuaren baldintza orokorre" buruzko erregistroa, sinatua eta zigilatua	X
Lanetan nahasitako langileen zerrenda eta langilea bera kontrataren kide dela adierazten duen zinpeko aitortpena (sinatuak)	X
Jarduerak berak dituen arriskuak ebaluatzea, jarduerak elkartzeagatik alda edo areago daitezkeen arriskuak barne. Lanpostuetako arriskuen ebaluazioak indarrean daudela adieraziz eta horietan zereginaren lan eta arrisku guztiak aurrez ikusten direla azalduz ziurtagiria (egin dituen teknikariaren sinaduraz eta dataz) aurkeztu beharko da.	X
Hartu beharreko prebentziozko neurriak.	X
Nahitaez erabili behar diren banako babes-ekipoak.	X
Jardueraren beraren arriskueta prebentziozko prestakuntza egiaztatzea (edukia, iraupena eta data).	X
Langileei jardueraren berezko arriskuei eta guru enpresak eskuratutakoei buruzko informazioa entregatu zaiela baieztatzea.	X
Langileen gaitasun medikoaren ziurtagiriak.	X
Gizarte Segurantzaren alta emanaren dokumentua (TC1, TC2, TA.2 ereduak).	X
Erantzukizun zibilaren aseguria.	
Gizarte Segurantzarekin ordainketak eguneratuak izatearen ziurtagiria.	
Istripu Mutuekiko harpidetza dokumentua	X
Prebentziozko modalitatea. SPAREN kasuan, ziurtagiria eta indarraldia adieraztea.	X

* Dokumentazio guztia enpresak zigilatua eta sinatua entregatuko da.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

KONTRATATUTAKO ENPRESA	
EGIN BEHARREKO LANA	
EGITE-DATA	
AREA / ZONA / ATALA	
SOLASKIDEA	

ENPRESA KONTRATUGILEAK ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA (markatu bidalitakoa)	
1. erregistroa: "kontratetarako dokumentazioa"	X
2. erregistroa: "zerbitzuaren baldintza orokorrak"	X
Zerbitzua garatzen den lan-zentroaren arrisku orokorreari buruzko ebaluazioa.	X
Zerbitzua garatzen den lan-zentroaren larrialdi-kasuetan neurriak.	X

* Dokumentazio guztia enpresak zigilatua eta sinatua entregatuko da.

Arriskuei, prebentzio-neurriei, larrialdietan jarduteari, argibideei eta abarri buruzko informazioa jasotzen denean eta jardueri ekin baino lehen, lan-zentroan elkartuko diren enpresaburuek prebentziozko helburuak betetzeko beharrezkotzat eta egokitzat jotzen dituzten koordinazio-bitartekoak zehaztuko dituzte. Negoziaketa kolektiboaren bitartez zehatz daitezkeen eta sektore nahiz jarduera zehatzetarako lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudian xedatuak dauden bestelakoak baztertu gabe. Koordinazio-bitartekoak hurrengoak izan daitezke:

KOORDINAZIO-BITARTEKOAK (adierazi zehaztutakoak)	
Lankidetzan diharduten enpresen artean informazioa eta jakinarazpenak trukatzea.	X
Enpresen artean aldizkako bilerak (urteko bilera)	
Segurtasun- eta osasun-batzordeekin bilera bateratuak	
Argibideak ematea (urteko bilera eta eguneroko jakinarazpena)	
Neurri bereziak (lankidetzan diharduten enpresekiko arriskuak)	
Prebentziozko bitartekoak izatea (bete azpiko koadroa, erantzuna baiezkua izanez gero)	
Koordinazio-arduraduna izendatzea (bete bigarren koadroa, erantzuna baiezkua izanez gero)	



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

PREBENTZIOZKO BALIABIDEAREN IZENAK ETA ABIZENAK	EGUNA	SINADURA

Prebentziozko baliabideak lan-zentroan izatea zehaztuko da, honako ustezkoren bat ematen bada. (54/2003 Legearen 32 bis artikulua)

Ondoz ondo edo aldi berean gertatzen diren eragiketak elkartzeagatik prozesua edo jarduera garatzean arriskuak alda edo areago badaitezke eta, ondorioz, lan-metodoak behar bezala aplikatzea kontrolatu behar bada.

Araubidez jarduerak edo prozesuak arriskutsuak edo arrisku berezikoak direnean.

Lan eta Gizarte Segurantzaren ikuskariak izatea eskatzen duenean, antzemandako lan-baldintzengatik egoerak hala behartzen badu.

KOORDINATZAILEAREN IZENAK ETA ABIZENAK	EGUNA	SINADURA

Lan-zentroan enpresa-jardueren koordinatzaileak egon beharko du, zerbitzuan zehar honako bi baldintza edo gehiago elkartzen badira.

5. Enpresa lehiakide batek araubidez arriskutsuak edo arrisku berezikoak (adibidez lanak altueran) diren jarduerak edo prozesuak lan zentroan egiten dituenean, bertan dauden gainerako enpresatako langileen segurtasun eta osasunari eragin badieziaiekete. Ikusi Prebentzio Zerbitzuei buruzko Araudiaren I. eranskina.

6. Lan-zentroan garatzen diren jardueren elkarrekintza kontrolatzeko zailtasun berezia dagoenean eta, ondorioz, arrisku larriak edo oso larriak sor ditzaketenean.

7. Langileen segurtasunaren eta osasunaren ikuspegitik lan-zentroan ondoz ondo edo aldi berean elkarren artean bateraezinak diren jarduerak ez garatzeko zailtasun berezia dagoenean.

8. Lankidetzan diharduen enpresa- eta langile-kopuruaren, garatutako jarduera-motaren eta lan-zentroaren ezaugarrien ondorioz prebentziozko jarduerak koordinatzeko konplexutasun berezia dagoenean.

Arrazoi tekniko eta antolaketa buruzko justifikatuak daudenean, prebentziozko jardueraz arduratuko diren pertsonak izendatu ordez beste koordinazio-bitartekoren bat erabil daiteke, betiere prozedura honen helburuak betetzen direla bermatzen badute.

NORK IZENDATZEN DU KOORDINATZAILEA?

Koordinatzailea AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAK edo obra egiteko berak eskuordetzen duenak izendatuko du.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

NOR IZENDA DAITEKE KOORDINATZAILE?

Honako edozein pertsona, gutxienez LAPan prestakuntza ertaina badu:

6. AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAK hitzartu ondoren, kanpoko prebentzio-zerbitzuaren kide bat edo batzuk.

7. AMOREBIETA-ETXANOKO UDALEKO langile bat edo batzuk, koordinatzailea izendatzea eskatzen duten jardueratan beharrezko ezagutzak, prestakuntza eta esperientzia badituzte.

8. AMOREBIETA-ETXANOKO UDALEKO beste edozein langile, enpresan duen kokagune hierarkikoarengatik eta zentroan garatzen diren ekoizpen-prozesuen inguruan dituen funtzio teknikoengatik enpresa-jarduerak koordinatzeko gaituta badago.

9. Prebentziozko jarduerak koordinatzen espezializatuak dauden enpresetako pertsona bat edo batzuk, prozedura betetzeko beharrezkoak diren gaitasunak, ezagutzak eta prestakuntza badituzte.

10. Kide diren enpresaren prebentziozko baliabideek lan-zentroan egon behar dutenean, koordinatzez ardura daitezke, betiere bere funtzio guztiak betetzearekin bateragarria bada eta atal honetan 1. eta 4. paragrafoetan aurrez ikusitako pertsonak badira.

	IZENA ETA ABIZENAK	SINADURA	EGUNA
ENPRESA KONTRATUGILEAREN ARDURADUNA			
ENPRESA KONTRATATUAREN ARDURADUNA			



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

ZERBITZUAREN BALDINTZA OROKORRAK

19. _____ jaun/andreak, _____ ko (postua) _____ k, Lan Arriskuen Prebentzio Legeak dituen xedapenak eta indarreko bestelako xedapen aplikagarriak betetzeko eta betearazteko konpromisoa hartzen du. Arreta berezia eskainiko die AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAREN Segurtasunari buruzko Arau Orokorrei.
20. _____ k Prebentzio Zerbitzu Propioaren/Kanpoko Prebentzio Zerbitzuaren (adierazi dagokiona) prebentziozko antolaketa-modalitatea onartu duela ziurtatzen du, beraz, Prebentzio Zerbitzuari buruzko kontratuaren fotokopia erantsi du.
- Era berean, _____ k osasunaren zaintzari buruzko prebentzioaren espezialitatea estalia duela ziurtatzen du eta, ondorioz, kontratuaren fotokopia aurkezten du.
- Langileak AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAK garatu behar dituen lanetarako gaituak daudela.
- Enpresak lan-arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-plana gauzatu dituela ziurtatzen du. Horrez gain, urteko prebentziozko jarduera egina du.
21. _____ enpresak arriskuen ebaluazioari buruz AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAK kontratatutako lanak garatuko dituzten langileei berri eman diela ziurtatzen du.
22. _____ karen zereginen arituko diren lanpostuetako arriskuen ebaluazioak indarrean daudela adieraziz eta horietan zereginaren lan eta arrisku guztiak aurrez ikusten direla azalduz ziurtagiria (egin dituen teknikariaren sinaduraz eta dataz) aurkeztu beharko du.
23. Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak 18. artikuluan xedatutakoaren arabera, _____ ko langileek prestakuntza egokia jaso dutela ziurtatzen du.
24. _____ lan eta Gizarte Segurantzaren xedapen guztiak, baita langileekin lan-harremanei eragiten dizkieten administrazio-xedapenak ere betetzez arduratuko da, gaur egun indarrean badaude edo lanak gauzatzen ari diren bitartean indarrean sartzen badira.
25. _____ k _____ izendatzen du langileen lana eta segurtasuna antolatzeko arduradun bezala. Hori izan ezean, funtzio horiek lanbide kategoría edo esperientzia handiena duen langileak garatuko ditu.
- AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAK lanak garatzeko kontrol- eta jarraipen-arduradun modura Gizarte Ongizateko zuzendaría edo bera ordezkatzeko duen pertsona izendatuko du.
26. AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAKO kontrol- eta jarraipen-arduradunari langileen segurtasun eta osasunean eragin dezaketeko alderdi aipagarri guztiak jakinaraziko zaizkio, bereziki, istripuak eta lan-gorabeherak, langileen osasuna edo segurtasuna arriskuan jarri badute.
27. _____ k une oro lanak garatzeko eskulan prestatua eta gaitua izango du.
28. _____ k bere kargura dituen langileei lanak gauzatzeko babes- eta segurtasun-ekipoak eta -elementuak emango dizkie.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

29. _____ k AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA hirugarrenekin hartutako betebeharren erantzukizunez salbuetsia eta libre mantenduko du, aipatu betebeharrak bereak ez direlakoan.
30. _____ k erantzukizun zibil orokorraren aseguruari buruzko kontratua sinatu eta indarrean mantenduko du, AMOREBIETA-ETXANOKO UDALEKO instalazioetan lanak gauzaten ari diren bitartean sor daitezkeen kalte pertsonalak eta materialak estaltzeko.
31. _____ k erabiltzen dituen bitarteko material guztiek Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea eta gainerako legezko araubideak beteko dituzte eta bereziki erreparatuko dizkiete AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAK zehazten dituen baldintzei.

AMOREBIETA- ETXANOKO UDALAK _____ ren eta lanetan parte hartzen duten azpikontraten lan-ekipoen egoera ona egiaztatzeko eskubidea gordetzen du.

32. _____ k garatu behar dituen lanen zatia azpikontratatu behar badu edo ABLEen langileak kontratatu behar baditu, aldez aurretik AMOREBIETA-ETXANOKO UDALEKO arduradunari jakinaraziko dio. _____ ko langileek edo azpikontrataturakoek AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAREN Segurtasunari buruzko Arau Orokorrak betetzen ez badituzte, instalazioetatik aldi baterako edo betirako botatzeko aukera izango da.
33. Enpresa kontratatuak prebentiozko neurriak betetzen ez baditu, AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAK egiten ari diren lanak gelditzeko ahalmena du, antzemandako urritasunak zuzentzen ez diren bitartean eta enpresa kontratatuari sor daitezkeen kalte-galerak erreklama diezazkioke. Horrez gain, AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAK jardunean dauden ordainketak eta ziurtagiriak atxiki ditzake, baita kontratua suntsiarazi ere, enpresak kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izan gabe.
34. AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAK une oro enpresa kontratatuak egiten dituen lanak ikuskatu ahal izango ditu, adierazitako prebentiozko neurriak betetzen al diren egiaztatzeko. Bai enpresa kontratatuaren arduradunak, bai bere langileek lan-arriskuen prebentzioaren arloan AMOREBIETA-ETXANOKO UDALEKO langileek egiten dituzten iradokizunak betetzeko erraztasunak emango ditu eta kontuan hartu ere bai.
35. Enpresak aurreko aitortpenak justifikatzen dituen dokumentazioa AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAREN esku jartzeko konpromisoa hartzen du.
36. Enpresak kontratuan zehar sortu ostean aurkeztu den dokumentazioan edozein aldaketa jakinarazi eta eguneratzeko konpromisoa hartzen du.

_____ n, 2016ko _____ aren ___ an

Sin.: KONTRATAREN Zuzendaritza

Sin.: Alkatea
AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

**V. ERANSKINA: KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ DUELA
BAIEZTATZEN DUEN ESANBIDEZKO ADIERAZPEN ARDURATSUAREN
EREDUA**

.....jaunak/andreak, helbidea
duenak, eta NAN zenbakia duenak, bere izenean eta/edo
..... enpresaren ordezkari gisa, helbidea duena,
eta IFK duena

AITORTU DU

Berak, berak ordezkatzeko duen Merkataritza Sozietateak eta Sozietatearen gobernu-organoak osatzen dituzten pertsonak ez daudela murgilduta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan Administrazioarekin kontratatzeke zenbatutako debeku-, ezgaitasun- edo bateraezintasun-auzietan.

Era berean, enpresa horrek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren betebeharrak eguneratuta dituela jaso da.

Eta horrela ager dadin, **AMOREBIETA-ETXANOKO UDALEKO ERAIKIN PUBLIKOEN GARBIKETA ZERBITZUA** prozedura irekiaren bidez kontratatzeke prozesuan parte hartzeke aurkeztu beharreko agirien ondoretarako, aitorten hau luzatu dut.

.....(e)n, 2016koaren(e)(a)n

Sin.:



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

VI. ERANSKINA: PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

Nik,jaunak/andreak, helbidean bizi naizen honek, NAN zenbakidunak eta.....telefono-zenbakidunak, erabateko gaitasun juridikoarekin eta jarduteko gaitasunarekin, norberaren izenean (edo enpresaren ordezkari gisa), Amorebieta-Etxanoko Udalak **AMOREBIETA-ETXANOKO UDALEKO ERAIKIN PUBLIKOEN GARBIKETA ZERBITZUA** kontratatzeko deitutako prozedura irekiaren berri izanda, ondokoa aitortu dut:

1. Hasieran zenbatutako lanak egiteko konpromisoa hartu dut (nahitaezko zerbitzuak) prezio honen truke:.....€/urteko (zenbakiz eta letraz), gehi (hala badagokio)€/urteko, %21eko BEZari dagokiona; prezioak kontzeptu guztiak barne hartzen dituela ulertu beharko da, zergak, gastuak, tasak eta edozein zerga arloko arielak, kontratistaren industria etekina barne.

2. Orduko garbitzailearentzat unitate prezio hau (makinak, eskuko tresnak, garbitzeko produktuak, etab. barne) betetzeko konpromisoa hartu dut, sor daitezkeen ezohiko zerbitzuak egiteko:.....€/orduko (zenbakiz eta letraz), gehi (hala badagokio).....€/orduko, %21eko BEZari dagokiona.

3. Baldintza teknikoak, administrazio-klausula bereziak eta kontratu hau arautu beharreko gainerako agiriak ezagutzen ditudala, horiek guztiak beren beregi nire gain hartuta.

4. Ordezkatzen dudana enpresak hori ireki, ezarri eta abian jartzeko arauketan eskatutako betekizun nahiz betebeharrak guztiak betetzen dituela.

.....(e)n, 2016koaren(e)(a)n

Sin.: